

**Euskara:
lainoen artetik
argi izpia**



Arg.: M. Albisu

300.000 pezetako BIDAIA zure zain dago!

**Oraindik ez al duzu GOIERRITARRA
laguntzeko errifarik erosi?**

**Zeren zain zaude!
Herri guztietan salgai dauzkazu!**



200 pezetaren truke



VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babezteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: (943) 88 96 12
Faxa: (943) 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Xanti Etxeberria, Maider Azur-
mendi, Saroi Jauregi, Iñaki Gu-
rrutxaga, Aitziber Murua, Josune
Amondarain, Andoni Sarriegi,
Naroa Arrieta eta Idurre Eskisa-
bel.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Irizarren lantegi berria inauguratua

Hazkunde beharrei erantzuteko, Ormaiztegiko Irizar autobus kooperatibak instalakuntza berriak inauguratu zituen urriaren 14an. 3.000 milioi pezetako inbertsioa egin dute lantegi berria martxan jartzeko. Lantegi berriak 30.000 metro karratu ditu, eta aparkaleku berriak, 20.000 m². Inbertsio berriari esker, Irizarren ekoizpen ahalmena % 50 handitu da. Ormaiztegiz gain, Marokon, Txinan eta Brasilen ditu Irizarrek autobus lantegiak eta guztiak kontutan hartuta, 23.000 milioi pezetako fakturazioa izango du aurten. Hiru lantegi horietan 650 langile ari dira lanean.

Inbertsio eta instalazio berriekin, iaz egin zituzten autobus kopuruaren bikoi-tza egingo dute aurten: 900. Hemendik aurrera, egunean 4,5 autobus egingo dituzte Ormaiztegin. Orain arte, 3,8 egin dituzte.

Autobus gehienak kanpoan saltzen ditu Irizarrek (ekoizpen osoaren % 59). Esportazioek % 120 egin dute gora aurten. Batez ere, Frantziara, EEBBetara eta Hong Kongera saldu dituzte.

595 langile ari dira lanean Ormaiztegiko Irizarren. Aurten 125 lanpostu berri sortu dituzte: aurrikusitakoa baino 82 gehiago.

Inaugurazioa

Inaugurazio ekitaldi handia egin zuen Irizarrek. Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Jabier Retegi Industria eta Nekazaritza sailburua, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua eta Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu nagusia izan ziren agintarien artean. Irizarrek atzerrian dituen lantegietako eta bezeroen ordezkariak ere izan ziren. Irizarreko langileak eta familiar-tekoak ere protagonista izan ziren.

BOTA BERTSOA

Irati Goikoetxea

Goierriko bertso-eskolako
ikaslea

**Beasaingo
udazken kulturala**

*Doinua: Mutil koxkor
bat.*

Hego-haizeak esku emanda
hortxe dakar mendebala,
hosto nabarrez jantzia dauka
lurrak bere gainazala,
dantza, musika, antzerki kanta...
bada aukera zabala,
ta jarraipena eman nahiean
urterik urte bezala,
martxan jarri da udazkeneko
ekitaldi kulturala. (bis)

Urriko azken asteburuan
emango zaio hasera,
hainbat ekintza lagun harturik
egitaraua bete da,
ta goitik behera aztertuz gero
denontzat bada aukera,
ekin ta ekin denona hartuz
egin dezagun aurrera,
eta hontara ikusten baita
herri baten izaera. (bis)

*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria


GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Arrasateko Unibertsitatean ere arazo horixe da, euskararena, eta han bertan ere salatua dut hori. Kanpoko hizkuntzen gezurrezko aitzakia horrekin, espezialitate-ikasketak espainieraz egiten dira Arrasaten, ez ingelesez, frantsesez edo alemanez. Arrasaten, ikaslegoaren % 80 inguru euskalduna eta aurreko ikasketak euskaraz egina sartzen da. Orain arte, erdiei bakarrik eskaini izan zaie Injinerutza Teknikoaren lehen urteetako gai orokorrak euskaraz ikasteko aukera. Gero, espezialitateetan eta Goi-mailako Injinerutzan, espainieraz irakatsi izan zaie (ez ingelesez) eta tekniko gisa espainieraz prestatuta irten izan dira. Emaita: karrera-amaierako proiektuetatik % 3 ere ez direla euskaraz egiten. Orain, zerbait aldatzen hasiak dira. Aurreko lehenengo aldiz, 2/3ei eskaini zaie euskaraz hastea eta espezialitateetan ere, batzuek (bi ikasgela daudenetan) hasi dira bidea urratzen, baina gainerakoek jai daukate oraingo. Beraz, han ere bada zer eginik!

Proiektuen arloan norbaitek esan lezake enpresek ez dietela euskaraz onartuko. Egia da enpresa batzuek ez dituztela euskarazkoak onartzen (hori ere euskaldunon eskubideen arloan aztertzeak datua da), baina beste askok bai eta hala ere, ume-umetatik euskaraz eskolatutako ikasle horiek, beren karrera-amaierako proiektuak espainieraz egiten dituzte. Zergatik? Eskolak teknikari espainieraz egin dituelako eta kito!

Arrasateko Teknikari gazte horiei, Jauregi eta Elortza jaunei gertatzen zaie-na gertatzen zaie, alegia, arlo teknikoan, hauek politikoan bezala, beren jardunean goren mailan aritzeko euskara ez dutela beren lehen hizkuntza eta horren ondorioz espainieraz jardutea erosoago eta errazago zaiela. Horrek noski, planak diseinatzerakoan edo kargudun gisa onartzerakoan ere, ikusmolde horrekin pentsatzea dakar eta hortik datoz gero etorkizuneko gazteentzat Injinerutza Teknikoa Goierrin jartzea pentsatzean hizkuntzaz egindako azalpenak. Kargudunok konturatu beharko zenukete, gaurko Goierriko gazteak, zuek ez bezala, euskaraz eskolatu direla (ezagutza % 90etik gorakoa dela jada DBH hasieran, ondoren aipatuko dudana HPS-Goieki azterlanean azaldu denez) eta jarraipena behar

Injinerutza teknikoa Goierrin (eta II)

dutela goi-mailetan ere, eta batez ere goi-mailetan behar dutela gainera, baldin eta etorkizunean lana euskaraz egitea nahi baldin badugu. Beraz, orain da Injinerutza Teknikoko Ikastetxea euskaraz ari dadin diseinatzeke garaia.

Bestalde, euskararen erabilpen-planak egin eta abiarazten hasiak gara, bai administrazioetan eta baita enpresa batzuetan ere (CAF, Irizar etab.). Teknikariak euskaraz prestatzen ez badira, hots, nahi dituzten hizkuntza guztiak jakin arren, teknikarako lehen hizkuntza euskara ez badute (eta hori Injinerutza Eskolak eman behar die; ez Haur Hezkuntzakoak), hemen espainiera izango dute nagusi eta ez ingelesa, frantsesa edo alemana eta azkenean enpresek eta zerbitzuek ez dute euskaraz egoki eta kalitatez funtzionatzerik izango, orain arte bezala espainieraz baizik (ez ingelesez). Hori oso garbi daukat eta horregatik esaten dut.

Bestalde, Goiekik Hizkuntz Politikarako Sailordetzarekin elkarlanean egin berri duen Goierriko azterlan batean, 5 puntu garrantzitsu azaltzen dira ondorio gisa. Harira datozenez, horietako azkeneko hirurak doaz ondoren:

"3.- Hezkuntza-eredu euskaldunak kontsolidatu behar dira ziklo ertainetan, oraindik hutsuneak agertzen baitira. Lan-merkaturako prestakuntza oso garrantzitsua da eskualde honetan."

Puntu hau azaltzean esan zuten, 1997-98 ikasturtean bertan, Goierriko Lanbide Heziketako Eskolan, 800 ikasle ingurutik 400 inguru (% 50) A eremuan aritu da ikasten. Horrekin dena esanda dago noski. Hori iraultzeko planik egiten ez bada jai dugu!

"4.- Administrazioko baliabideak kontsolidatu behar dira erabileraren aldetik. Erabilera planak udaletxe barne eta kanpora begira proiektatzen hasi be-

harra dago. Baliabideak sortzea eta koordinatzea: euskara zerbitzuak, euskaltegiak eta beste egituren errentabilizazioa egitarauen aldetik."

Honek argi eta garbi erakusten du, zerbitzu horiek guztiak euskaldun trebatugabe edo erdaldun erosoentzat itzulpen antzuak egiten eta behe-mailako eskolak (euskalduntzen etab. bakarrik) ematen arituta ez dagoela zer eginik. Baliabide horiek guztiak, jendea trebatu, jendeari euskara erabiltzeko eta erabiltzen laguntzeko behar dute noski eta ez Administrazioan bakarrik, handik kanpo herrian ere bai, erakunde pribatuekin ere behar diren hitzarmenak egin eta mundu horretan leporaino sartuz.

"5.- Lan mundua, komunikabide eta teknologia berrien munduek tratamendu berezia behar dute eta duten garrantziagatik beste hurbilpen-mota eskatzen dute."

Garbiago ez dago esaterik, lana euskaraz egiteko planifikatu behar dira lantegiak, industriak eta zerbitzuak, bai tresneriaren aldetik (softwareak, terminologia teknikoak eta beste) eta baita giza baliabideen aldetik ere. Baina hori, Eskola Teknikoetan, Moduluetan, Injinerutzakoetan, Gestioetan eta gainerakoetan egin behar da.

Amaitzeko esan, Injinerutza Teknikoa irakasteko eskola oso beharrezkoa dela Goierrin, baina behingoz, 1968an ez gaudenez, Injinerutza Tekniko hori euskaraz hasi eta buka emateko (nahi diren adina ingeles, frantses eta aleman eranskinekin eta harremanekin) prestatu behar dela. Bestela goierritarrenak eta Euskal Herriarenak egin du. Etorkizuna euskaraz dator eta hala datorrelako eta hala etorri behar duelako, etorkizun hori euskaraz garatu beharra dago. Goierrin oinarritzko irakaskuntzan jada, datu objektibo onak daude erronka horri ekiteko. Agintariok, mesedez, pentsa ezazue, planifikarazi ezazue eta erabaki ezazue etorkizun euskalduna goierritarrentzat! Ez zapuztu mesedez beste behin ere, DBHko ikasle euskaldun horien eta euskaldunon etorkizuna!

Andoni Sarriegi Eskisabel
(Injineru Teknikoa)

Hizkuntza Plangintzan Diplomaturak
Liburu teknikoaren egile eta itzultzailea)

TXANDAKA

Alice Euskal Herri miresgarrian

Lewis Carrollen ipuin zoragarriko protagonista bezalaxe sentitzen naiz. Untxi erloju-jalerik eta naipe-erreginarik ez dut topatu oraindik kalean, baina hala baltiz ere, azken bi hilabeteotan ikusi ditudanak ikusita ez nuke susto handirik hartuko.

Miretsita utzi naute EHren sorrerak —ezker abertzaleak izenak berak adierazten duen adinako zabalera hartu du, azkenean—, Lizarrako akordioak, ETAren su-etena, EAJk, Eak eta Ezker Batuak hartu duten konpromisoak... Txunditu egin naute urrats horiek guztiek ekarri dituzten hainbat eta hainbat ondoriok: besteak beste, Joseba Egibar eta Jone Goirizelaia elkarren besotik Guggenheimera sartzeak; EITB 'Bai euskarari' kanpainako azken ekitaldia zuzenean emateko prest izateak; euskal kulturako zenbat *enfant terrible*, erabat positibo, egoera berriaren aldeko propaganda egiten, eta areago, botoa eskatzen agertzeak: Mondragon Korporazioko buruzagi nagusietako bat Madril eta Parisi jaramon egin gabe Euskal Herria eraikitzeke garaia dela esaten entzuteak... Oro har, herritar xumeoi ilusioa loratu zaigula sumatzeak.

Egia esan, gustora nago herrialde —Euskal Herri— miresgarrian. Hala segitu nahi nuke eta aspalditik ahanztu antxa ditugun gauzez arduratzen hasi: haurtzaindegiez, hezkuntzaren eta osasun sistemaren kalitateaz, auzo bizitzaz, herri mugimenduez, jolasteaz, solasteaz... Hori bai bizimodua!

(Lerro hauek idazten ari nintzela jakin dut EAEko Legebiltzarreko hauteskundeetako emaitzen berri. Ondorioak berehala ateratzea zaila da, baina badirudi Aliceri Euskal Herri miresgarrian segitzen utziko diotela. Hori bai, lan handi eta kementsua egin beharko dugu gure bizilagun asko eta asko Aliceren herrira ekartzeko).

Idurre Eskisabel Larrañaga



Ezusterik izan al da zuretzat EAEko hauteskundeetan?

Eider Goenaga 22 urte, ikaslea lazkaotarra

Bai, izugarria. Partidu ez nazionalistak asko igo dira. Igotzea espero nuen baina ez hainbeste.



Unai Aldasoro 20 urte, ikaslea lazkaotarra

Espero nuen ez nazionalistak igotzea, baina ez nuen uste PP hainbeste igoko zenik. IU hainbeste jaistea ere ez nuen espero. EH igoko zela nahikoa nabaria zen.




Joxe Mari Aranburu 66 urte, erretiratua lazkaotarra

Espero baino ezusteko handiagoak izan ditut. Batetik EHren igoera eta bestetik, Iuren jaitsiera



Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58

kontsulta eskatu



*Sukaldeak berritu edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobe egingo dizugu*

ZINEA



GOIENIZ:

Azaroak 5, 'Ed Wood'
21:00etan, Usurbe antzokian.

Azaroak 12, 'D.D. Generation' eta 'Funny Games' 21:00etan, Usurbe antzokian.

BEASAIN:

'Los amantes del circolo polar'. Igandea 1: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 2: 19:30.

'Al caer el sol'. Ostirala 30: 19:30; larunbata 31: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Spieciess 2'. Ostirala 30: 22:15; igandea 1: 19:30 - 22:15; astelehena 2: 19:30.

'Dr. Dolittle'. Larunbata 31: 19:30 - 22:15; igandea 1: 16:45

'Ed Wood'

Tim Burton (EEBB, 1994)

Zabor-zinearen sortzailea omen, Z. saileko zuzendaria (azpikorik ez dago), munduko zinegilerik txarrena ere izendatu zuten Ed Wood gizarajoa, baita aldareetara igo ere (miseria gorrian bizi eta hil ondoren, noski) eta pertsonaia honen omenaldi biografia egin du 'Tim Burton'ek, --monstruo, fikziozientzia, telesail eta marrazki bizidunzale amorratuak (Eduardo Manostijeras, Mars Attack...)-- zeluloidean idatzitako mirespen eta maitasun (erruki?) gutun bat bailitzan.

'Funny Games'

Michael Haneke (Austria, 1998)

Oporrak hasi berria dira. Anna, Georg eta haien seme Georgie aintzira bazterreko etxe politeria abiatuko dira. Fred eta Eva bizilagunak ere bertan daude. Hurrengo egunean, Annak afaria prestatu bitartean, auzokideen laguna den Peter bertan azalduko da, ustekabea; baina, nola lortu ote du Peterrek etxean sartzea? 'Michael Haneke' zuzendari alemaniar gazteak gizarte modernoaren baitan erretzen diren bortizkeria motak aztertzen ditu bere filmetan, hauek guztiek ikuslearengan erreakzio gogorrek sortarazten dituztelarik (alde nahiz aurka).

MUSIKA

ARAMA:

Azaroak 7, Aitor Furundarena, 22:30ak aldean.

BEASAIN:

Urriak 31, Zeelanda Berriko 'Newzeland voices' abesbatzaren kontzertua, Andre Maria Zerutuaren parrokian, 20:30ean.

Azaroak 7, Tangoneando taldearen tango-ikuskizun musikala, dantzari-bikote batekin, Usurbe Antzokian, 20:00etan. 800 pezeta.

Azaroak 8, Tolosako Banda, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

ORDIZIA:

Urriak 31, Hungariako Angelica abesbatza, 20:00etan, Parrokian.

Azaroak 1, Japoniako Yuuka abesbatza, Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 12, L'Ensemble Amarillis taldea, Barrenan Kultur etxean, 19:30ean, Bach musikaldiaren barruan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Azaroak 7, Kale antzerkia: Yerbabuena taldearen 'Los locos años 20' lana, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Azaroak 10, Gerarta Iñaki Arotzenak 'Irrintzia, gure herriaren oihua' diapositiba bilduma aurkeztuko du, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 31, Miedomedá antzerki taldearen eskutik, 'Ahatearen ametsa', Herri Zinemian, 22:30ean.

OLABERRIA:

Azaroak 1, Kale antzerkia: Hika taldearen 'Txarlota-dak' lana, 17:00etan.

ZEGAMA:

Azaroak 8, Beasaingo Errail antzerkia taldearen 'Hitz egin dezagun... sexuaz', Zinean, 18:00etan.

IKUSENTZUEZKOAK

BEASAIN:

Azaroak 6, 'Trasandina 97' ikusentzunezkoa, Txema Sanchez eta Aintzane Egibarren eskutik, Aizkorri Mendi-zale elkartearen, 20:00etan.


LAZKAO:

Azaroak 4, Julian Auzmendiren eskutik, 'Artzantza urtaroen' diaporama, Maizpiden, 21:00etan.

Azaroak 11, 'Gizakiaren Elikadura historiaz zehar' diaporama, Udaletxeko Areto Nagusian, 21:00etan.

Argitarapen honen edizioa argitaratu.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

IKASTAROAK

ZALDIBIA:

Azaroaren 2tik aurrera, 'Pilota eskola-kirolean' ikastaro praktikoa, Euskara-kiro-la programaren barruan. Izen emateak, Kultur etxean.

HITZALDIAK

LEGORRETA:

Urriak 30, 'Bularreko minbiziaren prebentzioa', Lurdes Aritziturriren (Onko-logikoko doktorea) eskutik, Udaletxean, 16:00etan.

OLABERRIA:

Azaroak 2, 'Europar bi-daiatu, lan egin eta ikasi' hitzaldia, Bikario etxean, 18:30ean. Gazteleraz.

ORDIZIA:

Azaroak 12, 'Pobreziak (4. mundua) emakume aurpe-gia du' hitzaldia, Amaia Porresen (Bilboko Caritasekoa) eskutik, Barrenan, 15:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 1etik 15era bi-tartean, VII. Aire Zabaleko pintura lehiaketako lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan. Lanegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

LEGORRETA:

Azaroaren 1a arte, Jabier Fernandezek 'Naturako printzak' argazki erakusketa, Kultur etxean.

OLABERRIA:

Azaroaren 2ra arte, Jabier Fernandezek 'Baztanetik Gironarainoko haran guztiak' argazki erakusketa, Bikario etxean.

DANTZAK

BEASAIN:

Azaroak 8, III. Dantza Li-breko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan, 17:30ean.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Azaroak 6, Takolo, Pirrutz eta Porrotx, 17:00etan eta 19:00etan, Usurbe Antzokian. 600 pezetan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 1: Sagastarrira (996 m.). **Azaroak 8**: Finalis-taren eguna.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 1: Lezaun-Itur-goi-en-Trinidad. **Azaroak 8**: Elgoibar-Mutriku.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 8: Urnieta-Adarra.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Ehizeko 2 txakur sal-gai (erbi txakurrak dira). 943 886521.

☐ Oso gutxi erabilitako 2 metroko tresiloa salgai. Deitu 943 889687 telefo-nora, 20:00etatik 23:00etara.

☐ Arroiletako Neopre-nozko trajea (bikoitza) salgai. 4 taila. Eskarpi-nak, eskularruak eta ur azpiko botak. 943 160160 edo 989 412266.

☐ Klarinetea jotzen ikasten hasi naiz. Nor-baitek berea utzita eta salgai badu, hitz egin ge-nezake. 943 652207. 20:00etatik 22:00etara deitu.

Etxebizitzak:

☐ Bilbon (Deustua), bi pertsonentzako logela bat konpartitzeko neska bat behar da. Pisu eguz-kitsua eta berogailu zen-tralarekin. 939-069093. Ana. Gaueko 9etatik au-rrera deitu.

☐ Zegaman pisua sal-gai, berogailu zentralare-kin. Ana. 943 593478.

☐ Pisua salgai Ordizian. 88 m². 943 88 54 63 Mi-kel edo Elena.

☐ Pertsona baten bila nabil Ordizian pisu bat konpartitzeko. 943 881119. Arantza.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Urriak 31-azaroak 1: Atorrasagasti (Poligonoa - Ordizia). 943-882938.

Azaroak 7-8: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-880587.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

☎ 943 88 72 76

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Lehen hezkuntza
- ✓ DBH, LOGSE
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Aprestazio arazoak

☎ 943 160 120

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN

ERREZETA



Mari Jose Aldasoro
Toki-Alai jatetxea
Arama

PETIT-CHOUXak

Osagaiak: litro erdi ur, goilarakada bat azukre, gatz piska bat, 125 gramo gurin, 250 gramo irin eta 5 edo 6 arrautza.

Ontzi batean ura, guri-na, gatz eta azukrea jarri. Behin urtutakoan, irina gehituko diogu piskana-piskanaka. Jarraian arrautzak bota ore bere puntuan gelditu arte.

Olio berotan frijitu, prestatutako ore goilarakadaka botaz. Harro-harro egiten dira. Barrua krema eta esnegainez bete. Gaietik, glas azukrea bota.



Naroa Arrieta
KEMEN-eko Dietista
Elikagaien Zientzietan eta
Teknologian lizentziatua.

Gertu ditugu hain ezagunak diren urteroko lasterketa herrikoi horiek. Ia astebururo kirol pitin bat egiteko aukera izanen dute kirola maite edota fisikoki gustora egoteko helburua dutenak.

Kontuz ibili behar da, halere, horrelako probetan ateratzeko intentzioa soilik ez baita nahikoa. Aldez aurretik gorputza ohitzen joan beharra dago eta horretarako entrenamendu egokitu bat nahikoa bada ere, elikadurak ezinbesteko eragina izango du errendimendu egokiena edota kirola era osasuntsu batean egin nahi baldin bada.

Elikadura egoki bat izatearen onura garrantzitsu bat, giharren suntsipenaren mu-

AHOLKUA

Aktibitate fisikorako aholku dietetikoak

rrizketa izan daiteke, hau da, gihar zuntzek behar duten energia aurrez gordetako biltegietatik erabiltzea ahal izango dute, giharra osatzen duten proteinen beharra izan gabe.

Kontutan izan beharko diren funtsezko aholku batzuk:

- Lasterketa aurretik, bitartean eta ondoren ura edan 150-200 ml, 10 - 15 minuturo, tenperatura ez oso hotzean (10 -12 ° C).
- Bestelako edariak hartu nahi baldin badira konzentrazio isotonikoa dutenak izan daitezela (edari isotonikoak), hauek bukeran hartu daitezke izerdi bidez galdutako mineralak errekupe-ratzen laguntzeko.
- Lasterketa aurreko otorduak eragin psikologikoa izango du gehienbat, horregatik gomendatzen da ohizko gosaria mantentzea, lasterketa baino 2-3 ordu lehenago eginez.

● Energi biltegiak betetzeko lasterketa aurreko aste-ko elikadura egokitu beharra dago, horrela Karbohidratoen Karga deituriko janari planifikazioa gomendatzen da, 60-90 minutuko iraupena duten lasterketatan batik bat.

● 90 minututik gorako aktibitate fisiko baterako, Maratoia adibidez, edariak ez dira nahikoak izango eta energi biltegien erabilpenak jatera bultzatuko gaitu. Energi iturria azkarra izan behar denez, fruta (laranja, platano, sagar), txokolate (barritxo energetiko komertzialak) edo edari energetikoak hartuko dira.

● Ariketa fisiko iraunkor edo luze baten ostean janari eta edariak errekupe-ratioan lagunduko dute. Deshidratazioari aurre egiteko gomendatzen diren elikagaiak barazkiak eta frutak dira, arrain, haragi eta arrautzak kantitate txikiagoetan hartuz.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- × LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- × ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala
Zorion Insausti



Iridiologia

ARAZO HAUEK SENDATZEN DIRA:

ARGALTZEKO DIETA	ZIATIKA
URDURITASUNA	BIZKARREKO MINA
DEPRESIOA	AZUKRE ALTUA
DIGESTIO TXARRA	BURUKO MINA
IDORRERIA	EDOZEIN MIN
TENTSIO ALTUA	KOLESTEROLA



Pisua eta altuera

Reflexoterapia

Kale Nagusia, 8 - 1.
943 88 13 37 ORDIZIA

EAeko Legebiltzarreko hauteskunde emaitzak Goierrin


Urriaren 25eko hauteskundeetan Goierrin izan diren emaitzak bildu ditugu orri honetan. Taulan 1994ko hauteskundeetan lortutako emaitzak azaltzen dira hizki txikiagoz.

Botoa emateko eskubidea 33.490. 1996 pertsonen izan dute. Partehartzeari dagokionean, azkeneko bi hauteskundeetan izan den handiena izan da Goierrin. Abstentzioa % 26,15koa

izan da. Boto zenbaketari dagokionean, EHk lortu ditu boto gehien (7.798). Bigarren indarra EAJ (6.411) izan da eta hirugarrena EA (4.244). Hurrengo postuetan PSE-EE (2.772), PP

(2.472) eta IU-EB (881) gelditu dira. 1996an emaitza hauek lortu zituen alderdi bakoitzak: HB 5.962; EAJ 5.960; EA 4.381; PSE-EE 4.123; PP 1.926; IU-EB 1.295; eta besteak 157.

HERRIA	ZENTSOA	ABST.	EH/HB	EAJ	EA	PSE-EE	PP	IU	BESTE
ALTZAGA 94AN	82 79	%32,93 %39,24	38 20	7 15	9 12	0 0	1 1	0 0	0
ARAMA 94AN	144 131	%22,22 %33,58	58 34	27 26	20 22	2 1	2 3	2 0	0
ATAUN 94AN	1.397 1.421	%19,11 %26,95	575 472	322 283	196 244	10 6	10 3	10 4	0
BEASAIN 94AN	10.228 9.921	%27,14 %36,63	1.653 1.312	2.118 1.757	974 1.063	1.220 1.066	942 452	329 441	78
EZKIO-ITSASO 94AN	465 440	%21,08 %24,54	183 146	78 51	96 84	1 4	7 0	1 1	0
GABIRIA 94AN	363 361	%16,53 %28,25	91 54	64 45	137 154	2 0	6 6	1 0	0
GAINTZA 94AN	112 112	%27,68 %50,00	37 24	26 12	16 17	0 0	1 2	0 0	1
IDIAZABAL 94AN	1.665 1.623	%24,26 %34,75	345 260	329 327	433 368	31 28	92 34	15 17	8
ITSASONDO 94AN	537 536	%24,58 %34,75	205 157	101 90	50 60	19 14	21 15	8 13	0
LAZKAO 94AN	4.006 3.962	%25,79 %35,46	967 784	763 721	333 322	396 355	327 136	121 179	12
LEGORRETA 94AN	1.195 1.199	%23,51 %33,19	277 223	328 303	97 70	105 97	73 62	16 22	2
MUTILOA 94AN	143 149	%35,66 %42,28	34 27	23 24	32 24	0 1	1 6	0 2	0
OLABERRIA 94AN	890 952	%28,88 %43,38	159 116	150 137	67 82	111 98	100 60	29 41	6
ORDIZIA 94AN	7.631 7.549	%26,27 %36,85	1.576 1.253	1.237 1.089	848 704	791 659	749 470	301 427	35
ORMAIZTEGI 94AN	970 950	%16,49 %25,68	265 186	312 282	158 165	13 8	33 15	15 10	3
SEGURA 94AN	1.030 1.018	%16,50 %23,87	310 246	193 189	296 296	9 8	22 14	10 3	2
ZALDIBIA 94AN	1.309 1.279	%24,06 %33,15	610 496	122 125	123 119	54 45	48 35	18 19	4
ZEGAMA 94AN	1.131 1.149	%21,40 %32,27	357 278	143 113	336 333	8 14	35 21	3 6	1
ZERAIN 94AN	192 186	%19,79 %37,63	58 44	68 38	23 31	0 2	2 0	2 0	0
GUZTIRA 94AN	33.490 33.017	%26,15 %36,66	7.798 6.132	6.411 5.627	4.244 4.186	2.772 2.406	2.472 1.335	881 1.185	152



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

GOIERRITARRA berandu

Zenbait herritara ohi baino berandua-
go iritsi zen GOIERRITARRA aldiz-
kariaren azkeneko alea (145.a). EAE-
ko hauteskundeak zirela eta, lana pila-
tu zitzaizen postetxeetan eta horregatik
izan zen atzerapena. Barkatu eragoz-
penak.

Belen Gonzalez desagerturik

Santo Domingon deportaturik zegoen
Belen Gonzalez lazkaotarraren berri-
rik ez da urriaren 18az geroztik. Bera
eta Angel Iturbe goizean hondartzara
joan eta ez ziren itzuli. Hipotesi guz-
tiak zabalik daude familiaren esane-
tan.

PSE-EEren egoitza Altamiran

Ordiziako Altamira auzoan PSE-EE
alderdiak Herriko Etxea inauguratu
zuen urriaren 17an.

Erramun Gametxo

Ormaiztegiko idazleak, 'Ni Dios, ni
Darwin' liburua kaleratu du. Uniber-
tsoko galdera handien erantzun filoso-
fikoak-eta bilatu nahi izan ditu liburu
honekin. Gametxo pentsalariak dio hi-
rugarren bide bat topatu duela Jaun-
goikoaren eta darwinismoaren adie-
razpenen ginetik. Liburua gazteleraz
dago, baina ingelesez idatziko luke
gustora nazioartean oihartzun handia
espero baitu. Arabera argitaletxeare-
kin kaleratu du liburu Gametxok.

Xabier Agirre

Legorretako aktorea Goenkalen hasi
da. Beatrizen osabaren papera egiten
du Agirrek.

Aulia sagardotegia

Beasaingo Murumendi Elkartek an-
tolatutako XXV. Sagardo txapelketa
Legorretako Aulia sagardotegiak ira-
bazi du

Artisaualdi arrakastatsua

Urriaren 16tik 18ra bitartean Ordizian
ospatu zen Gipuzkoako artisauen azo-
ka, arrakastatsua izan zen antolatzaile-
en esanetan. 9.000 lagun gerturatu
omen ziren Majori kiroldegira eta sal-
mentak ere onak izan ziren. Postu do-
toreenaren saria Itsasoko Pott kerami-
kakoentzat izan zen.

Etor Mendia lazkaotarrak bere 4. 'Ironman' triatloia egin berri du Ibizan

Antzizar Triatloi Taldeko ordezkari
bakarra izan da bera. "Urtero bezala
zerbait egiteko asmoa genuen eta az-
kenean ni bakarrik animatu naiz", dio
Etorrek. Ibizako 'Home de ferro' pro-
ba izan da, Espainiako txapelketa on-
dorengo distantzian: igerian 3,8 kilo-
metro, txirrinduar 180 km eta korrika
maratoia (42km).

Aurten proba ondo prestatzeko as-
moa zuen baina irailean lan askorekin
ibili eta ezinezkoa izan du behar be-
zala entrenatzea. "Oso gutxi ibili naiz
eta helburua nuen Ibizara joan, lasai-
lasai hartu eta bukatzea. Proba hasi
eta igeri oso ondo egin nuen, inoiz
baino hobeto. Txirrinduan ere gustora
nenbilen, behar baino azkarrago joan
nintzen eta gero akordatu nintzen ho-
rretaz. Lehen 120 kilometroak oso on-
do egin nituen, gero, 180 artekoak su-
fritzen egin nituen eta maratoiean
'arrastaka' ibili nintzen", dio. Azke-
nean aurretik pentsatuta zuen denbora
egin zuen: 10 ordu eta 25 minutu.

Aurten Espainiako txapelketan par-
te hartu nahi izan du, estatuko beste
kirolariekin parekatu eta nola dagoen
ikusteko. "Ez dago, ikaragarritzko
mailarik, lehen 2 edo 3 oso onak dau-
de baina gero tarte bat dago. Ni Es-
painiko txapelketan 12. geratu naiz
inongo gauza berezirik egin gabe. Be-
har bezala prestatuta joanez gero 5 le-
henengotan sartuko nintzela pentsa-
tzen dut".

Horrelako proba batean, presta-
kuntza garrantzitsua da eta proba eza-
gutzea ere bai. "Ondo entrenatuta joa-
ten zarenez, haseran oso erraz joaten
zara, aurreraxeago ere bai, baina bu-
kaeran maratoi bat geratzen da. Pro-
ba batean behar baino azkarxeago joa-
nez gero, bukaeran faktura pasatzen
du".

Burua ere entrenamendu luzeak
egitean jartzen joaten da. Horrelako
proba batean buelta asko ematen ditu
bai buruak, baita gorputzak ere. "Mo-
mentu batzuk daude oso ondo senti-
tzen zarenak, kilometro batetik bestera
beheraldia izaten da, gero berririo pis-



4. 'Ironman' proba du Etor Mendiak.
94an holandan, 96an Dinamarkan,
97an Suizan eta aurten Ibizan. Orain
arteko 3 triatloietan Aitor Eskalanteren
laguntza izan du. Suizan Igor Mertxan
beasaindarra eta Patxi Intxausti
segurarra izan ziren.

ka bat zuzpertzten da... Momentu ho-
riek gainditzten jakin behar da", dio
Etorrek.

Entrenamenduetan ezinbestekoa da
kilometroak egitea, ordu asko sartzea.
Orainarte denborarik onena Dinamar-
kan egin zuen 10 ordu; baina orduan
ere 9 t'erdia egiteko itxaropena zuen.
"Goizean lo hartu, ez genuen gosalt-
zeko denborarik izan eta lasterketa
ona egin nuen arren, azkenean ikara-
garritzko 'pajara' harrapatu nuen. En-
trentatuta 9.30 inguru hori egin deza-
ket baino horretarako dena ondo ate-
ra behar da eta ez da erraza".

"Lasterketa bat behar bezala pres-
tatzeko gogoarekin geratu naiz. Ho-
rretarako denbora behar da eta lana-
rekin ez dakit ahal izango dudana. Den-
boraren arabera entrenatzen dut, ezer
planifikatu gabe, besteei aholkatzen
diogun justu aurkakoa egiten dut".

Datorren urtean duatloiak prestatu
nahi ditu eta gero Donibaneko triatloia
ondo prestatuko du (4km igeri, 120
txirrinduan, 30korrika). Euskadiko
txapelketa da eta orainarte Ironmane-
rako prestaketa bezala egin du. Antzi-
zar Triatloi Taldeko zenbait maiatzan
Lanzarote Ironmanera joateko as-
moa dute, baina horretarako neguan
entrenatu behar da eta horretan lanak
eta eguraldiak lagundu behar du.

BEASAIN, ORDIZIA ETA ZEGAMAKO ANTZERKI TALDEEN ESKUTIK:

Goierriko antzerki amateurraren zikloa

Urtean egindako lana emanaldi huts batean gelditu ez dadin, Goierriko hiru antzerki talde amateurrek trukeak egingo dituzte, hiru herrietako udalen laguntzaz. 'Goierriko antzerki amateurraren I. zikloa' antolatu dute. Ordizian bi emanaldi izan dira dagoneneko, Beasaingo Errail antzerkiaren eta Zegamako Kalaka antzerkiaren eskutik. Jarraian dituzue gainerako emanaldien eta antzerki talde bakoitzaren xehetasunak. Antzezlan guztiak, euskaraz dira.

Ordiziako Antzerki taldea:

'Romeo eta Julieta'

Amaia Apaolaza, Iñigo Balerdi, Maider Bartolome, Mari Sol Caverro, Martin Etxeberria, Garikoitz eta Gorka Lariz, Arrate Leunda eta Xabier Urkiak osatzen dute taldea. Rosa Rojo da hauen zuzendaria. W. Shakespearen 'Romeo eta Julieta' lana aurkeztuko dute.

Emanaldiak: Zegamako zinean, azaroaren 15ean, 18:00etan

Beasaingo Usurbe antzokian, azaroaren 20an, 20:00etan.



Beasaingo Errail antzerkia: 'Hitz egin dezagun... sexual'

Maider Agirre, Ana Barrero, Aitziber Garmendia, Ainara Mujika, Mari Luz Torreño eta Miren Zufiaurre dira aktoreak, eta Rosa Rojo zuzendaria. Dario Fo eta Franca Rame-
ren testuetan oinarritutako antzezlan da eta maitasunaz hitz egingo dute.

Emanaldiak: Zegamako zinean, azaroaren 8an, 18:00etan.



Zegamako Kalaka antzerkia 'Jo ezak berriro Sam'

Axier Elizegi, Olatz Olarte, Iker Goiburu, Arrate Igoa, Amaia Arrieta eta Arantza Goiburu dira aktoreak eta Lurdes Intsausti idiazabaldarra dute zuzendaria. Allan izeneko gizon arraro eta dibertigarriaren xelebrekeriak kontatuko dituzte.

Emanaldiak: Beasaingo Usurbe antzokian, azaroaren 27an, 20:00etan.



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA

KUBIA
AU-PAIR
FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBBetan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
Arrasate, 33 behea C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

JOSETXO ZUFIAURREREN LIBURUA BEREHALA KALERATUKO DA

Beasaini buruzko monografia etnografikoa

Azaroaren 2an aurkeztuko da aurtengo 'Beasaingo Paperak' bildumako liburua. Oraingoan Josetxo Zufiaurreren lan mardul bat da: 'Beasaini buruzko monografia etnografikoa'. Zortzi ataletan banaturik Beasaingo bizimodua eta ohiturak nolakoak ziren biltzen da, On Joxemiel Barandiaranek prestatutako galdera sorta jarraituz. Zufiarurrek liburuko hainbat atal eta pasarte laburtu dizkigu. Liburua irakurtzeko interesa pizteko adina.

Baserria

Goierrri aldean baserri mota bat daukagu. Zurezko ate handia daukate, gehienak atari handia, uztarrian behiak jartzeko modukoa. Beste batzuk ate hori atzealdean dute, karrera esaten diote, eta aurrealdean ate txikia izaten dute.

Baserri hau XV. mendea delako esaten dugu, baina ez orain dagoen bezala. Lehenbiziko solairurarte harritz egiten zen. Baserritarak berak egiten zuen erreka harriekin. Beharbada kantoiak harlanduarekin egin nahi bazituen harginen batek egiten zituen. Handik gora dena egurra izaten zen. Habeak, zutabeak jarri, teilatua eman eta baserritarra bera joaten zen egiten. Baserri zahar-zaharrak azken 100 urteetan berrituta daude. Horregatik erosi du Diputazioak Ezkioko Igartubeiti baserria, lehengo itxu-

Zergatik monografia etnografikoa?

On Joxemiel Barandiaranek galdera-sorta orokor bat egin zuen. 830 galdera ditu 8 ataletan banatuta (Etxea eta etxeokak, etxe-koen ohiturak, lanbideak, itsasketa eta arrantza, nekazaritza-ustiapena, eskulangintza eta beste lanbide batzuk, lurraldea eta kulturizazioa). Pentsatu zuen Euskal Herri osoan egin beharra zegoela atlas etnografikoa eta Etniker taldeak sortzen hasi zen. Momentu honetan 75 lagunetako taldea dabil bakoitza bere herrikoa egiten galdera-sorta hori jarraituz. Urte bakoitzean atal bat lantzen dute.

"Orain dela 25 urte artzantzari buruzko lana egiten hasi nintzen. Aralarko artzantzari buruzkoa, bideak non zeuden, zein saroi zeuden, saroi bakoitzean zein artzai zegoen... On Joxemielek lana aztertu zuen eta argitaratu egin behar

zela esan zidan. Nik ez nuen horretarako asmorik eta berak zera esan zidan: 'Gizonak ez dauka eskubiderik herriarengandik jaso duena berarentzat gordetzeko. Hura landu eta berriz ere herriari itzuli behar dio'. Orduan egin zidan Gipuzkoako Etniker taldeetan sartzeko proposamena. 830 galderatako galdera-sorta eman zidan eta poliki poliki hasi nintzen. Lan honen atal berezi batzuk 'Beasain Jaietan' eta beste zenbait lekuetan argitaratzen joan izan naiz. 20 urte pasatu dira. Beasaingo 11 baserritan egon naiz, 22 berriemaile izan ditut, horietatik erdiak hilda daude. Oraindik bizi da 102 urteko berriemaile izana, Garingo Bazterretxe baserriko Plazida Insausti", dio Zufiaurrek.

20 urte hauetan Euskal Herriko atlas etnografikoa-



rentzat dozena bat lan entregatu ditu. Jubilatu zenean zenbait lan ezberdin egin zituen eta azkenean erabaki zuen beste lanak utzi eta monografi hau bukatzea. "Azkeneko 3 urteetan aritu naiz erredaktatzen. Datuen bilketa aspalditik egin nuen. Gipuzkoan argitaratzen den lehen herrikoa da, Nafarroan bi egin ziren eta Bizkaian beste bat. Lan zabala da, 530 orrialde euskaraz eta erdaraz, 250 argazkitik gora eta 160 marrazki. Lan honekin bukatu dut nire helburu nagusia, On Joxemielek orain dela 20 urte agindutakoa".

Pertsonak

Euskal Herriko pertsonak nolakoak diren antropomorfikoki Aranzadik esandakoa hartu nuen. Beasaingo odol emaleen batzordekoei datu batzuk eskatu nizkien, 1980 inguruan: non jaioak ziren eta zein odol mota zuten. Hemen azaldu zen Euskal Herriko kanpo jaiotakoetan, Rh- %10 zela eta Euskal Herrian jaiotakoetan %18,9. Udaletxeko artxiboa soldaduskara joateko neurri eta pisuak hartu nituen.

Elkadura

Denak plater batetik jaten zuten. Egutero indabak, aza

garaian azekin eta bestela bakarrik. Baita urdaiarekin eta salda askorekin egin ere. Lehenengo saldatan ogizopak, gero indabak eta gero urdai pusketa bana jaten zuten.

Jazkera

Lihoa egiten zenetik, ehuleek ehuna egiten zuten, etxeok andreak etxean josten zituzten. Lixiba etxean egin eta gurdian urberritu edo aklatatzera errekaratzen eramaten zituzten.

Emakumeek gona luzea eta txanbra (blusa) beltza eramaten zuten. Beltz hori erositakoa izaten zen, lehenago liho kolorekoak (zu-

ran dagoelako. Berrikuntza horiek kanpoko paretetan nabarmentzen dira, barrua, zurajea garai batean egiten zen bezalakoa da. Oraindik baserrietan ikus litezke ohollezko paretak. Errazagoa da hesiarekin egindakoak ikustea. Hesia ez da ikusten, karearekin nahastutako buztinarekin estaltzen baitzen.

Ikerle bakoitzak etxe bat aukeratu behar du herrian. Nik Loinatz-azpikoa aukeratu nuen, oso polita zelako, paretan sartuta oraindik zurezko egitura ikusten zitzaien. Zoritxarrez ez daukagu zegoen bezala, berriro egin dute, bizi egin behar baita.

riak) izaten ziren. Gizonek praka eta alkondara zuriak, lihozkoak. Eguraldi txarra- rekin ardi larruren bat jar- tzen zuen gainetik, zakua ere bai. Alkondara handiak eta luzeak erdiraino baka- rrik irekiak izaten ziren. Hauek sagarrak biltzeko aproposak izaten ziren, ge- rrikoa ondo estutu, alkonda- ra atera, arbolara igo eta sa- garrez alkondara betetzen zuten. Gurdira igo, alkonda- ra gerritik atera eta sagar guztiak gurdira botatzen zi- tuzten.

Abarkak aitak egiten zi- tuen. Etxeko txekorra hilda- koan larrua karearekin pis- ka bat ondu eta neguko iluntzetan aitak egiten zi- tuen famili guztiarentzat abarkak.

Gona gorria

Baserri txikiak izaten ziren eta batez ere emakumeak kanpora ateratzen ziren la- nera, Araba aldera. Nik Beasainen ez dut topatu bai- na horrela izaten zen. Diru bila joaten ziren, garia eba- kitzera-edo. Askotan ez zu- ten diru asko ateratzen bai- na gona gorria ekartzen zu- ten ezkontzeko. Gona go- rria oso garrantzitsua zen ospakizun handietarako.

Erromeriak

Jaiero erromeria izaten zen. Eskuko soinurik ez zegoen eta ahoko soinuarekin egi- ten zen. Eta ahoko soinua jotzen zuenik ez bazegoen, panderoa eta txistua jo eta jendea dantzan aritzen zen.

Heriotza

Hildakoan Iparraldean adi- bidez, etxekoek ezin zituz- ten etxeko lanak egin gor- putza etxetik atera arte, au- zokoek egin behar zituzten. Horretarako garrantzi han-



Liburuko azalean ageri den argazkia: Altamira baseriko sukaldean, 1930 inguruan, Erramuna, Joxe Mari, Dolores eta Agustin.

dia du lehen atepak. Etxeak bi bizitza izan arren, elizara bidean gertuen dagoen etxea da lehen atea. Etxe horretakoek, nahiz eta ase- rre egon eta urte guztian ez hitz egin, beste etxean nor- bait hiltzen denean etxeko lan guztiak egiteko obliga- zioa daukate. Hemen hori ez dut jaso, garai batean egingo zen, baina ez zen hain zorrotz eramaten. He- men batik bat emakumeak etortzen ziren laguntzera. Urrutiko senideak eta jende asko etortzen zen eta denei jaten emateko auzokoek la- guntzen zuten. Hemen etxe- koak ezin zuela lanik egin ez da ezagutu.

Baserriko lanak

Gizon eta emakumeek bere lanak nahiko bereiztuta iza- ten zituzten nahiz eta bata- k besteari lagundu. Gizonak ganadu nagusien lanak era- maten zituen, behiak, zal- diak, astoa eta etxez kanpo- ko lanak. Emakumeak egi- ten zituen, ganadu txiki- en lanak, txerriak, oiloak, ko- nejuak, baratza eta etxeko lanak. Baina gauza bat da garrantzitsua: erabakiak. Erabakiak hartzeko garaian ez emakumeak agintzen zuen eta ez gizonak agint-

zen zuen. Behi bat saldu edo erosi behar bazen gizo- nak emakumearekin kont- sultatzen zuen. Diru kont- tuak emakumeak eramaten zituen, bera joaten zen peri- ra sagarrak-edo hartuta eta erosketak ere berak egiten zituen, behia edo horrelako erosketaren bat ez bazen.

Garraioa

Orduan garraioa astoa iza- ten zen. Horrean badut anekdota bat, ez da Bea- saingoa, Zeraingoa, baizik. Gure aitonak erbi-zakurrak omen zituen. Tolosako den- dari bat pasa omen zen eta erosi nahi izan omen zion. Bost duro eta etxe sarrerako erloju bat eskaini omen ziz- kion. Amonak hura entzun zuenean tentagarria egin omen zitzaion. Dendari hori Tolosako Zamarripa erloje- roa zen. Amonak astelehen batean astoa bi saskitan sa- garrekin hartu eta oinez To- losara joan zen. Perian sa- garrak saldu, txakurra Za- marripanean utzi, erloju al- tu hori astoaren gainean ja- rri, bost duro jaso eta abiatu zen. Baina astoaren balan- tzarekin erlojua hondatuko zitzaion beldurra zuen. As- katu astotik, jarri buru gai- nean eta Tolosatik Zeraina

buru gainean eramandako erlojua oraindik han dago baserrian.

Abeltzaintza

Behia ez zen orain bezala pintoa, pirenaika eta alpeta- ko suiza baizik. Orduan gurdian ibili behar ziren, goldan ere bai, orain hain- bat esnerik ez zen ateratzen. Denborarekin aldatzen joan da. Euskaldun baserritarra oso azkarra izan da beti nahiz eta laguntza gutxi izan. On Joxemielek beti esaten zuen euskaldunari saitua izateko indar hori ba- serritik datorkiola. Baserri- tarrak hurrengo egunerako 2 edo 3 lan prestatuta izan behar zituen, eguraldi txar- rarekin etxean egiteko la- na, onarekin kanpoan egite- koa eta badaezpada ere 3. bat hala moduzko eguraldia ateratzen badu. Eguneroko gimnasi horrek, buruari ohi- tura bat ematen dio eta hor- tik atera da euskalduna be- harrean gertatu denean zer- baiti heltzeko grina horre- kin.

Bukatzeo

Beasaingo gizaldi honetako ohitura eta bizimodua jasota dago, baita gogoratzen zi- ren aurreragokoak ere. On Joxemielek esaten zuen 30 belaunaldirekin Jesukristo- ren garaira iristen garela. Horrek ez du esan nahi 30 belaunaldi horiek gauzak xuxen-xuxen gorde dituzte- nik. Baina Euskal Herrian gizaldi honetan gauza ba- tzuk egin dira Jesukristoren garaian egiten ziren bezala- xe, egiteko erak eta pen- tsatzeko erak ere bai. Gero aldatu egin dira. Nire hi- tzaurrean esten dut, herria- ren beste monografia etno- grafiko bat egin beharko de- la 50 urte barru.

Gero eta euskaldun gehiago Goierriin...

Eustatek, 1996ko erroldako datuak argitaratu ditu. Goierriko datuei dagokienean, euskara dakitenen kopurua igo egin da, eta biztanleriaren % 66,75 euskalduna da. Ia-euskaldunen kopurua mantendu egiten da, %12,33. Erdaldunena, berriz, gero eta beherago doa; %20,91. Datuen irakurketa egin du Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek eta jarraian dituzue ondorioak, batzuek baikorrak, eta besteak ez hainbeste. "Ezagutzaren datuak dira honakoak; erabilerarenak nolakoak ote dira?" galdetzen du Goierriko Euskal Eskolak. Argibideetarako esan, ondorioak ateratzean Goierri, geografikoki, bi gunetan zatitu dela: Goierri erdigunea (Beasain, Lazkao, Olaberria eta Ordizia) eta Goierri periferikoa. Datu zehatzak, tauletan dituzue.



+ Herri erdaldunenetan ia-euskaldunen proportzioa esanguratsua da: erdaratik euskarara datoreen jendea, ongi etorri!



+ Euskaraz tutik ez dakien jendearen proportzioa nahikoa bajua da herri handietan eta oso bajua herri txikietan.



+ Euskaldunen zutabeak hartzen du Goierriko hizkuntzaren nagusitasuna.




+ 1986-1996: euskaldunen kopuruak gora egin du, ia-euskaldunena egonkor mantendu da eta erdaldunenak behera egin du.




+ Erdigunea, egun, erdaldunena da, baina euskalduntze prozesuan dago.



+ Euskararen etorkizuna positiboa izan daiteke gazteen esku dagoelako.



- Goierri erdigunean, nahiz eta erdiak baino gehiagok jakin euskara, gaztearen presentzia oso handia da. Euskara ez dago Goierri erdigunean, periferian baizik.



- Erdaldunak helduak dira eta oso bloke sendoa osatzen dute, beraiek antolatzen dute gizartea, esparru guztietan daude eta gizartea antolatzeko traba dira.

HERRIA BIZTANLEAK	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
ALTZAGA 92	%96,73 89	%2,17 2	%1,08 1
ARAMA 155	%89,03 138	%9,03 14	%1,93 3
ATAUN 1.569	%96,11 1.508	%2,23 35	%1,65 26
BEASAIN 12.088	%56,24 6.799	%13,52 1.635	%30,22 3.654
EZKIO-ITSASO 531	%91,33 485	%6,59 35	%2,07 11
GABIRIA 417	%94,48 394	%3,35 14	%2,15 9
GAINTZA 133	%96,99 129	%3 4	%0 0
IDIAZABAL 1.995	%85,46 1.705	%8,57 171	%5,96 119
ITSASONDO 611	%82,48 504	%9,00 55	%8,51 52
LAZKAO 4.783	%61,53 2.943	%12,77 611	%25,69 1.229
LEGORRETA 1.404	%73,29 1.029	%9,47 133	%17,23 242
MUTILOA 166	%92,77 154	%5,42 9	%1,80 3
OLABERRIA 1.001	%51,94 520	%12,08 121	%35,96 360
ORDIZIA 8.949	%56,66 5.071	%18,61 1.666	%24,71 2.212
ORMAIZTEGI 1.161	%81,13 942	%10,68 124	%8,18 95
SEGURA 1.241	%87,42 1.085	%6,76 84	%5,80 72
ZALDIBIA 1.534	%88,39 1.356	%4,88 75	%6,71 103
ZEGAMA 1.325	%92,00 1.219	%4,75 63	%3,24 43
ZERAIN 231	%96,10 222	%2,59 6	%1,29 3
GUZTIRA 39.386	%66,75 26.292	%12,33 4.857	%20,91 8.237



IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 880543 BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



... baina kalean geroz eta gehiago erabiltzen al da?



	EUSKAL.	IA-EUSKAL.	ERDAL.	BIZTAN.
1986	% 60,76	% 11,21	% 28,02	41.463
1991	% 63,49	% 12,96	% 23,53	40.260
1996	% 66,75	% 12,33	% 20,91	39.386

Aurrera begira, eginbeharrak:

● Euskaldunen eginbeharrak:

- 1.- Euskara erabili, nonahi eta noiznahi, ez soilik haurrekin eta txakurrekin, baita medikuekin eta abokatuekin ere.
- 2.- Ia-euskaldunei irakatsi eta dakitena erabiltzen lagundu.
- 3.- Erdaldunak ikas dezaten motibatu.

● Ia-euskaldunen eginbeharrak:

- 1.- Ikasten jarraitu, erabat euskaldun bihurtu arte.
- 2.- Dakizuen erabili.

● Erdaldunen eginbeharrak:

- 1.- Ikastera ausartu, zuek ere euskararen osasunaren arduradun zarete eta.

Datu-iturria: EUSTAT, erroldetako datuak
(Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak landuak)

Jakin bai, erabili ez, kontzientziarik ez

Iñaki Larrañaga Siadecoko kideak datuen irakurketa egin digu. Euskararen ezagutzaren datuak onak direla argi utzi du, igoera bide onean doala eta. Herri erdaldunenak (Ola-berria, Beasain, Ordizia eta Lazkao) euskalduntze prozesuan sartuta daude. Hori bai, inguruko herri txiki batzuetan eta aldi berean euskaldunenetan, erdaldun protzentaia igo egin da zertxobait.

Oro har, euskararen ezagutzaren datuak onak dira, baina erabilerarenak ez hainbeste. Dena den, hori baino okerragoa eta larriagoa dena ere ba omen du euskarak: euskararen aldeko gero eta jarrera eta kontzientzia gutxiago dagoela "Hizkuntza bat osasuntsu dagoela adierazteko ezinbestekoak diren elementuak ezagutza eta erabilera dira. Eta bi horiek baino askoz ere garrantzitsuagoa, motorraren funtzioa betetzen duelako, motibazioa, atxekimendua, hizkuntz kontzientzia da. Hizkuntzaren osasuna adierazteko, ezagutzaren datua sintoma bat da. Baina beste sintomen berri zuzenean ez badakigu ere, datu batzuk argitaratu izan dira erabilerari dagokionean. Orain daukagun arazo nagusia, hizkuntzarekiko atxekimenduaren arazoa da. Jende mordo bat badago, jarrera hartu duena, euskararik ez duela ikasiko eta ez duela nahi. Orain dela 20 urte hori esatera jendea ez zen ausartuko, dio Larrañagak. Frankismoaren bukaeraren, hizkuntzarekiko atxekimendua eta motibazioa handiagoa zela gogoratu du, nahiz eta ezagutza txikiagoa izan. "Garai hartan, hizkuntzarekiko jarrera baikorragoa zelako, posible izan da jende bat euskararen ezagutzara bultzatzea. Horrek ez du hirugarren urratsik izan; hau da, erabilerarena. Motibazio horrek, berez, erabileratik autoelikatu behar luke. Erabilerarik ez duenez, euskara ez da biziberritzen. Beharrik sentitzen ez denez, motibaziorik ez da sortzen".

Era honetan dio, "batetik baikorra naiz, baina bestetik, kritikoa. Datuak onak dira baina sintomak adierazten dute osasuna ez dela ona. Momentu kritiko batean gaude eta momentu honetan ez baldin baditugu hizkuntzaren osasunak behar dituen puntu horiek eskuratzen, itxura onekoa den egoera hori, goitik behera joan daiteke gutxian. Inoiz ez da euskara orain bezain ondo egon, baina inoiz ez da euskara orain bezain arriskuan egon".

Prozesua behar bezala bideratzeko oso erne ibiltzea eta ahalegin berezia egitea gomendatzen du. "Motibazioa elikatuko duen argibideak, arrazoiak... eman behar dira. Hezkuntzak ez du lortu hizkuntza maitatzen erakustea. Jendeak ez du euskara sentitzen eta arazoa horretan dago. Jendeari euskara jakin gabe zer galtzen duen adierazi behar zaio".

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

ATAUN
Odol-emaile sarituak


Goierrri bailarako odol-emaileek, lehengo larunbatean, urriak 24, ospatu zuten Ataunen, urteko bilkura nagusia. Jende multzo handia bildu zen eta antolatu ziren ekitaldiak arrakastatsak izan ziren.

Ongi etorria, organo kontzertuarekin eman zen eta ondoren Udaletxeko areto nagusian, sari-banaketako ekitaldia izan zuten. Bertan, 25 eta 50 emanaldi egindako odol-emaileei, diplomak, insigniak eta oroigarriak banatu zitzaizkien.

Gure herrian, sei lagun zeuden 25 aldiko kopuru hau gaintitzen zutenak: Miel Arratibel, Maria Agirre, Ana Auzmendi, Rosa Goñi, Mertxe Bilbao eta Benito Dorronsoro. Zorionak guztioi!

Azkenik, 200 lagundik gora bildu zituen afari eder batekin eman zitzaion amaiera ospakizunari.

Gaurko gizartean, Odol-Emaleen elkarteak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du eta bertako zuzendariak azaldutako datuen arabera, Gipuzkoan, bi arrazoi nabarmenengatik pozik egoteko moduan omen gaudela: odol-emaile kopuru

handia dagoelako alde batetik eta bestalde herrien arteko antolaketa sarea oso maila onekoa delako. Egiten ari den lana hain bikaina izan da, orrialde honetatik, herriko ordezkariak eta

odol-emaile guztiak zoriontzeaz gain, oraindik emale ez den horri gonbitea luzatu urtean hiru alditan egiten den dei hauetan ahal badu elkartasun ekimen honetan parte hartzeko.

Organo kontzertua

Aurtengo Gipuzkoako Bach Jaialdiaren zikloari, Ataungo organotik ateratako notekin emango zaio hasiera datorren igandean, Azaroak 8an, arratsaldeko 18:00etan izango den kontzertuarekin.

Errekaren
enkauzameduak

Ataungo Udala eta Eusko Jaurlaritza iritsi diren akordio baten ondorioz, badiruz

di oso epe motzean (datorren urte hasieran) hasiko direla San Gregorioko gunean eta Iztator aldeko erreka enkauzameduei dagoen obrak. Guztira, 90 milioi aurrekontua dute.

Eusko
Legebiltzarrerako hauteskundeak

Ondorengo emaitza hau eman zen urriaren 25ean ospatutako bozketan:

EH	575
EAJ-PNV	322
EA	196
PP	10
PSE-EE	10
IU-EB	10

San Martin Jaiak 1998

Dagoeneko prest dago aurtengo San Martin jaien programa. Hamabost egun barru zehatzago emango badugu ere, hemen duzue aurrerapena:

Azaroak 7, larunbata:

16:00etan: Marrazki eta idazketa lehiaketa eskolan.

Azaroak 11, asteazkena:
San Martin Eguna

11:00etan: Trikitilariak kaleetan zehar.

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren, bertsolariak kalustran eta salda beroa Atsedentokian.

14:15ean: Bazkaria Bitor Jatetxean.

16:00etan: Sebastopoleko Titiriteroak eskola inguruan.

18:30ean: Pelota partiduak kiroldegian.

Azaroak 13, ostirala:
Koadrilen Eguna

12:00etan: Juntadizioa eta poteoa Agautz trikitilariarekin.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor Jatetxean. Ondoren karretila lasterketa.

19:00etan: Koadrilen arteko patata tortila lehiaketa.

22:30ean: Bertso saioa Kiroldegian: Joxe Agirre, A.M. Peñagarikano, A. Egaña, J. Munduate, A. Mendiluze, M. Lujanbio.

24:00etan: Triki-ta-ke taldearekin dantzaldia goizalderarte.

Azaroak 14, larunbata:
Umeen eguna

12:00etan: Herriko preso eta errefuxiatuen aldeko zenbait ekintza ezker abertzaleak antolatuta.

12:00etan: Toka txapelketa.

13:00etan: Kalejira.

14:00etan: Umeen bazkaria.

16:00etan: Mus Txapelketa.

17:00etan: Pailazoen jaialdia.

21:00etan: Herri-afaria. Mozorro gaua.

24:00etan: Maixa eta Ixiar.

Egunean zehar: Antzar Gazteak Txaranga.

Azaroak 15, Igandea

12:45ean: Herriko Dantza taldea.

18:00etan: Jentilen Etorrera.

20:00etan: Mondeju jana eta Nahiko orkestrina.

Azaroak 22, Igandea

11:00etan: Ataungo Hiru Auzoetako XIX. Korrikaldia.

ARAMA

Bi asteburutako jaiak

San Martin eguna asteazkena izaki, bi asteburuetan izango dira aurten herriko jaiak. Hori bai, astearen erdian, asteartean eta asteazkenean, zehazki, ohiko ekitaldiak izango dira, San Martin bezperako gaztaina jana barne. Egitarau zehatza duzue jarraian. Beraz, ondo pasa jaiak!

Azaroak 7, larunbata:

20:30ean: Herri-afaria.

Ondoren: Aitor Furundarena eta Zeberio eta Gorrotxategi bertsolariak.

Azaroak 10, asteartea:

San Martin bezpera:

20:00etan: Txupinazoa.

20:30ean: Gaztaina jana.

Ondoren: Eider eta Oihana trikitilariak.



Azaroak 11, asteazkena:

San Martin eguna:

10:00etan: Alegiko txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Arrikutz elkartean hamaiketakoa.

13:00etan: VI. Pala txapelketaren finala.

17:00etan: Mus txapelketa.

18:00etan: Haur jolasak.

Ondoren: Trikitilariak.

Azaroak 13, ostirala:

23:00etan: Kristina eta Amaia trikitilari taldea.

Azaroak 14, larunbata:

14:00etan: Mutil zahar eta neska zaharren bazkaria.

18:00etan: Toka txapelketa.

19:00etan: Herriko trikitilariak.



23:00etan: Sorginbeltz eta Furunda taldeak.

Azaroak 15, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Eskuzko pilota partiduak.

18:00etan: Ahari eta oilarrauzka saioa.

Ondoren: Trikitilariak.

24:00etan: Suzirien azkenengo traka.



TOKI-ALAI JATETXEA

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Jbares errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzeakoak dira Apaiz etxea, Jriarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herriar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.

GABIRIA

Giro ederra jubilatuen egunean



Herriko jubilatuen euren festa-egunean.

Joan den urriaren 18an ospatu zuten jubilatuen Udalak eskaini ohi dien festa-eguna, eta eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, lagunarte ederrean igaro zuten eguna.

Ospakizunari hasiera emanez meza nagusia izan zuten, ondoren herriko dantzarien saioa eta ordu

biak aldera bazkaria Ostatu jatetxean.

Ospakizun honen barruan opari berezia egin zitzaion orain arte oparirik jaso ez duten eta bertan zeuden herriko bi zaharrenei, hain zuzen ere, Bidaurreta-ko Juliri eta Etxatxuko Pedrori. Dena dela, bazkaltzera etorri zirenetatik zaharre-

Errezil sagarraren lehiaketa azaroaren 22an

Igaro dira jadanik bi urte Errezil Sagarraren lehiaketa eta baserriko produktuen azoka antolatzen hasi ginela herritarrok, eta bi ekitaldi horietan zer-nolako arrakasta izan den ikusiz, aurtengo ere antolatzeko asmotan dira Gabiriako Udalak eta Erbie elkarteak.

Honela bada, datorren azaroaren 22an izango da aipatutako lehiaketa hori eta parte hartu nahi duten herritarrek izena azaroaren 10a baino lehen eman behar dute udaletxean.

Baldintzei dagokienez, iazko berberak izango dira, hau da, parte hartzaileek hogeita hamarna kilo sagar aurkeztu beharko dituzte eta horretarako antolatzaileek partaideei bina saski emango diete. Aurkezten diren guztiek hiruna mila pezeta jasoko dituzte eta lehenengo hirurek sari bereziak izango dituzte.

Lehiaketaz gain, goizeko hamarretatik eguerdiko ordu biak arte baserriko produktuen azoka izango da eta inguratzen diren guztien artean saskikada bat errezil sagar zozketatuko da.

na Zantagoitiko Antonio izan genuen aurtengoan ere, 92 urte ondo beteta baititu jadanik.

Bazkari ederra eskaini zieten benetan Maribik eta

Martinek bertara hurbildu zirenei eta giroa gehixeago alaitzearen bertsolariak eta trikitilariak ere hantxe aritu ziren.

Gabino Murua

LEGORRETA

Urriaren 28an hasi zen Kultur astea, baina asteburuan izango dira ekintzarik nagusiak.

Urriak 30, ostirala:

16:00etan: Bularreko minbiziaren prebentzioa, hitzaldia, euskaraz, Lurdes Arizturriren (Onkolokiko doktorea) eskutik, Udaletxeko Batzar aretoan.

16:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa jubilatuentzat.

17:00etan: 'Annaanna' filmea Herri Zineman.

22:00etan: 'Titanic' filmea, Herri Zineman.

23:00etan: Legorretako IV. Mus txapelketa, Bilkoinen.



Asier Zinkunegiren 'Ahatearen ametsa' antzeslana larunbatean izango da.

Urriak 31, larunbata:

11:00etan: Haurren jokoak eta 'Zure txokorrik politena' marrazki lehiaketa, herriko enparantzan.

17:00etan: Txangoren txaranga, haurrentzako jaialdia, udal pilotalekuan.

22:30ean: 'Ahatearen ametsa' Miedomedá antzer-

Kultur astea igandera arte

ki taldearen saioa, Herri Zinemaren. Euskaraz.

Azaroak 1, igandea:

11:00etatik 14:00etara: Nafarroa Artisautza feria, Tolosako gaiteroek alaitua.

13:00etan: Buruhandiak, herriko soinu-joleak eta dantzariak.

Oharra: Aste guztian zehar, Jabier Fernandez olaberriarraren 'Naturako printzak' argazki erakusketa izango da ikusgai, Kultur etxean. Ordutegiak hauek dira: arratsaldetan 5etatik 8etara eta larunbatean eta igandean, baita goizean ere: 12:00etatik 14:00etara.

ORDIZIA

Aparkaleku berria Joseba Rezola kalean



Aparkaleku berriak egingo diren ingurua.

Kotxeak aparkatzerakoan herrian sortzen diren hainbat arazo kontutan hartuta, Udala 60 kotxerentzat tokia izango lukeen aparkalekua sortzeko asmotan dabil. Berau Joseba Rezola kalean joango litzateke. Izan ere, tren geltokiaren inguruan dauden garai bateko tren bideak ez dira erabiltzen gaur egun. Jabea Renfe enpresa da eta Udalak hitzarmena sinatzeko asmoa du 1.500 metro karratu inguru, 15 urtez uzteko helburuarekin.

Asmoa, beraz, 60 kotxerentzat kabida izango lukeen aparkalekua egitea litzateke, ahalik eta azkarren.

Renfeok hitzarmena sinatuko balute 15 milioi inguruko aurrekontua joango litzateke lan hauetarako. Sarrera geltokiaren aldetik izango litzateke eta irteera, berriz, orain katez itxirik dagoen alde horretatik. Tokia ez da txarra izango, herri gunetik bertantxa bailegoke.

EH botoetan nagusi

Igandean burututako EAEko Legebiltzarra osatzeko hauteskundeetan Euskal Herriarrok alderdiak lortu zituen botorik gehienak he-

rrian, 1.576 hain zuzen. Hori atzetik EAJ 1.237rekin, EA 858rekin, PSE-EE 791ekin, PP 749ekin, IU 301ekin eta azkenik gaitzazkoentzat 35 boto izan ziren. Aipatu abstentzioa %26,27koa izan zela, orain lau urte baino azkoz baxuagoa.

Eguraldi kaxkarra izan bazen ere, jendea aterkia hartuta hor joan zen bakoitzari zegokion hauteslekura. Orain, jarleku kopuruak finkatu direnean, politikoen eskuetan geratzen da Legebiltzarra nola osatu.

Gure herriari dagokionez EH, EAJ, EA, PSE-EE eta PP izan dira gora egin dutenak, 94ko hauteskunde autonomikoak kontutan hartuz gero.

Abaria etxeko lanak

Egoera txarrean zegoen aspalditik Enparantza Nagusiko Abaria etxea. Orain, ordea, Kutxak beste lokal berria egiteko asmoa duela eta, Abaria etxea bere gain hartu eta berritzeko lanetan hasiak dira. Nahi hau ez da oraingoxekoa. Izan ere,

orain ia 14 urte erosi zuen Kutxak aipatu etxea. Dena den, tarteko arazoak zirela eta ezin izan zituzten euren nahiak aurrera eraman.

Abaria etxea herriko zaharrenetarikoa da, gaur egun herri guneko aipagarrienetarikoa bat Udaletxea, Enparantza eta Posta etxearekin batera. Monumentu historiko eta arkitektoniko gisa hartua dago gainera. Hau dela eta, lanak egitekoan kontutan izan beharko dituzte eraiki zeneko oinarri eta abarrak (armarria, leihoak, harria...).

Kontzertuak elizan

Atzerriko abesbatzak lanean ikusteko aukera izango da larunbat eta igande honetan eliza parrokian. Urriaren 31n Hungariako Angelika abesbatzak bere saioa eskainiko du ilunabarreko 8etatik aurrera. Azaroaren 1ean, aldiz, Japoniako Yuuka abesbatzari egokituko zaio txanda, ilunabarreko 8etatik aurrera baita ere.

Aitor Calvillo

OSKARBI
OINETAKOAK

Dr. Martens

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malindreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza
943 88 00 84 ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA


KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

ZEGAMA

Joxe Azurmendi ezagutuz



Zegamarra dugu Joxe Azurmendi pentsalaria eta modu honetan agertzen da aipamena egiten zaion alde guztietan. Oso gaztetatik herriatik at ibilia da ikasketak egiten eta bere lan oparoa plazaratzen. Honen guztiaren ondorioz pentsalarien artean maila handia lortu du eta bere lanak hainbat iritziren iturri izan dira.

Urteetan zehar saiakeren munduan aberatsen izan den euskaldunak, momentuan momentukoaz pentsatu eta idatzi izan du. Hauetan ardatz nagusienak literatura, politika eta orokorrean Euskal Herriko fenomenoak aztertu ditu.

Oraingoan Zegamako Kultur etxeak herriko semearen nondik norakoak jakiteko asmoz, 'Joxe Azurmendi ezagutuz' joateko zenbait ekintza antolatu ditu azaroaren erdialderako. Lehenik hiru hitzaldi izango dia Kultur etxean, iluntzeko 8etan. Azaroaren 11n 'Joxe-

ren haur eta gaztaroa' gaitzat hartuta Joxe berak eta Joseba Intxaustik parte hartuko dute. Azaroak 12, osteguna, Jesus M. Mujikak, 'Alemanian ezagutu zuen Joxetaz' hitz egingo du. Azkenik azaroaren 13an, Julian Belokik eta Joxek berak 'Gaurko Joxeren' inguruan elkarriketatu dira.

Hiru egunetako aukera paregabe honen ondoren, azaroaren 14an ohikoa den San Martin azokarekin batera, Kultur etxeko areto nagusian Joxeren bizi eta lanari buruzko erakusketa izango da ikusgai.

Hau dugu hain ezaguna alde batetik eta bestetik hain ezezaguna zaigun Joxe ezagutzeko aukera.

Aitxuri herri-eskola

Ikasturte berria martxan da eta urtero egin ohi den bezala, lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mailako 45 ikasleek bukaera eman diote Majori kirol-



Antzerki zikloa herrian

Herriko Kalaka Antzerki taldeak Ordizian antzeztu du da-goeneko eta azaroaren 27an Beasainen izango du txanda. Hau horrela izanik, Beasain eta Ordiziako taldeek ere izango dute beraien lana Zegaman antzezteko aukerarik. Beasaingo Errail Antzerki taldeak azaroaren 8an, igandea, arratsaldeko 6etan, 'Hitz egin dezagun... sexuaz' aurkeztuko du. Azaroaren 15ean, berriz, ordu berean, Ordiziako Antzerki taldeak 'Romeo eta Julieta' eskainiko du. Oraingoan antzerkiaz gozatzeko bi aukera paregabe eskaintzen dira herrian bertan.

degian irailaren 14tik urriaren 9ra arte eginiko igeriketa ikastaroari.

Igerian ikasteaz gain, majo moldatu dira gure neska-mutikoak bakarrik janz-

ten, lokarriak lotzen eta euren gauzak antolatzen. Ia zain daude datorren urtekoa noiz iritsiko!

Maidar Azurmendi



Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN



FAGOR

X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurrira

Larunbat arratsaldez irekita

Erakusketako ☎-faxa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591


Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN

BEASAIN

Udazken kulturala bete-betean



Antzara jokoan Igartzako elementuak dira oinarri.

Bihar, urriak 31, hasiko da aurtengo Udazken kulturala bere lehenengo urratsak egiten. Kultur aldi honetan ohiko bihurtu diren hainbat ekintzekin batera, berrikuntzak ere badira. Gainerako ekintzen berri, 6. eta 7. orrian duzue.

Berrikuntzak:

● **Haurrentzako jokoak:** Igartzako ondarea eta aldi berean herriaren historia haurregana hurbiltzeko, bi joko kaleratuko ditu Udalak.

Batetik, Antzara jokoak: Igartzako elementuak dira oinarri joko honetako 63 laukitxoetan. Asteburu honetan Igartzako parkean izango den haur jolas-parkean, Antzara joko erraldoia jarriko dute haurrek bertan jolas dezaten.

Bestetik, liburuska bat kaleratuko da. Loi neskatxoak da bertako protagonista. Igartzako jauregian bizi den neskak, hurrei, Igartzako ondarearen eta ga-

rrantziaren berri emango diete. Aldi berean, Igartzako ondarea osatzen duten elementu garrantzitsuenak izango dituzte lehenengo margotu, gero moztu eta ondoren etxeak edo eraikinak eraikitzeko.

Bi joko hauek herriko dendetan salgai jarriko dira.

● **Postalak:** Udalak bi postal bilduma kaleratuko ditu. Azaroaren 9an egingo da aurkezpena. Bilduma batean, Igartzako ondare multzoko eraikinak azaltzen dira. Sepia kolorekoak izango dira. Bilduma osoa erosi beharko da.

Herriko irudi orokorrak agertzen diren 6 postal ere kaleratuko dira. Hauek banaka erosi ahal izango dira. Arriarango urtegia, Beasainen ikuspegi orokorra Txindoki atzean dela, gurutzea, San Martin basiliza eta Ezkiaga auzoko elizak elurretan, eta Igartzako jauregia dira postaletako argazkiak. Guztiak ere, koloretan.

Ikastaroak, Ezkiagan

Ezkiaga Auzo-etxean hiru ikastaro hasiko dira azaroan. Izen emateak Auzo-etxean bertan edo 943-161024 telefonon egin behar dira.

● **Ipuin kontalarien ikastaroa:** Asteazken eta ostiraletan, 18:30etik 20:30era izango da. 20 orduko ikastaroa da eta azaroaren 11n hasiko da.

● **Sendabelarren ikastaroa:** Ostegun eta ostiraletan, 18:30etik 20:30etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era izango da ikastaroa. Azaroaren 12an hasiko da.

● **Saskigintza ikastaroa:** bi hilabetetan, asteazkenero izango da, 18:30etik 20:30era. Azaroaren 4an hasiko da.

Azkeneko aldiz 1991n kaleratu zituen Udalak herriko postalak.

Aldaketak:

● **Argazki rallyan aldaketak:** Argizpi Argazkizale elkarteak antolatutako Argazkigintzako VII. Rallyak bi aldaketa izango ditu. Batetik, aurreko edizioetan igandean egin bada ere, aurten larunbatean jokatu da. Egun osoko rallya izango da. Gaia gainera, argazkilariek ez dute aurretik jakingo, egun berean, goizean, zozketa bidez, jakingo da gaia. Beraz, Argazkigintza rallya, urriaren 31n izango da. Izena eman eta materiala hartzeko aukera, egun bereko goizeko 9etan izango da. Sari-banaketa, azaroaren 15ean egingo da, 20:00etan, Udaletxeko Batzar aretoan.

● **Errezil sagarren lehiaketa:** Baserritarrak keja samar izaten zirela eta, bigarren asteartean izango da aurten Arrano Kultur Elkarrekin antolatu ohi duen Errezil sagar lehiaketa. Izan ere, sagarra ondo heldu gabe izaten omen da garai horretan. Aurten beraz, astebete gehiago izango dute sagarrak heltzeko. Azaroaren 10ean izango da azoka be-

rezia. Postu dotoretasun lehiaketa ere izango da egun berean.

● **Erraldoi eta buruhandiak:** Beasainen dagoen trafiko arazoa kontuan hartuta, erraldoi eta buruhandiak ez dira oraingoan kalez kale ibiliko. Joan Iturralde plazara joango dira erraldoiak eta buruhandiak eta hantxe egingo beharko dute nahikoa korrika txikiak.

Beasaingo Paperak

Azaroaren 2an, 19:30ean, aurkeztuko da Beasaingo Paperak bildumaren 7. zenbakia, Usurbe antzokian. Josetxo Zufiaurre etnografoak idatzi du 'Beasaini buruzko monografia etnografikoa' liburua. Aldizkari honetan bertan, 12-13 orrietan duzue liburuaren edukia.

Udaletik jakitera eman digutenez, liburuaren banaketa ez da abendurarte egingo.

Euskaraokea

ETBren 'Euskaraokea' programa grabatuko da Loinazko San Martin plazan, azaroaren 5ean, arratsaldeko 5:30etatik aurrera. Muntai lanak direla eta, Andra Mari kalea itxita egongo da goizeko 9etatik.

SEGURA

Partzonerirako lana

Partzoneriko koto sozialean lan egiteko 7 lagun kontratatuko dira. Interesatuak azaroaren 13rako eman behar dute izena partzoneriko herriren batetan. Ezinbestekoa da herri horietakoren batekoa izatea (Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain, Asparren edo San Millan). Herri bakoitzetik bat behintzat ziurtatuko da eta aukeraketa azterketaren bitartez egingo da. Lanak azaroaren 20tik apirilaren hasiera arte iraungo du.

Santu Guztiak

Azaroaren 2ra arte egun osoz egongo da irekita kanposantua. Santu guztien egunean, errosarioaren ondoren, arratsaldeko 5etan izango da meza hilerrian. Azaroaren 2an arimetako meza izango da urte barruan hil direnen alde, iluntzeko 7etan parrokian.

Hauteskundeak

Urriaren 25eko hauteskundeetan EHk (orain arte HB) Segurako botoen gehiengoa lortu zuen lehenengo aldiz, 310 boto atereaz. EAK 296 eskuratu zituen, EAJk 193,



Barbarako basoko haritz baten azpian (berak dioen bezala, ondozuriak harizti edo gaztainadietan ateratzen dira eta ondobeltzak, berriz, pagadietan). Perretxikotan ibiltzen diren herriar askok harrigarritzat jo dute aurkikuntza.

Lehenengo hiru edizioak Hegoaldean (Goierri eta konkretuki Seguran) burutu badira ere, laugarrena, Iparraldean gauzatuko da lehen aldiz. Azaroaren 27tik 29ra Nafarroa Behereako Donapaleun izango da Iparraldeko eta Hegoaldeko, herri bera osatzen dutenen arteko, elkargunea. Egitaraua guztiz zehazturik ez badago ere, zenbait ekitaldi aurrera daitetzeke: ostiralean, azaroaren 27an Hegoaldeari buruzko hitzaldi-solasaldia izango da. Zapatuan, Iparraldeko eta Hegoaldeko artisau eta nekazal produktuen azoka goizez. Iparraldeko eta Hegoaldeko nesken arteko futbol partidua eta ondoren mutilena arratsaldean. Gaez, musika eta dantza

PPk 22, PSE-EEK 9, IUk 10 eta UAK 2. Hiru herrialdeetako abstentzio tasarik txikienetakoa izan zen Segurakoa: 1.030 boto emaileetatik %16,5a abstenitu zen.

Pelota

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan, urriaren 23an, jubenilek 22 eta 13 galdu zuten Eibarkoen kontra eta

Ondozuri kuriosoa

Zustar bereetik aterata, 5 ondozuri dituen kilo pasaxoko perretxikoa aurkitu zuen pasa den igandean Kortaiko Luix Oiarbidek Santa

IV. Iparra-Hegoa Iparraldean



Iparraldeko eta Hegoaldeko harremanen sinbolo bezala, orain 3 urte Iparraldetik ekarritako gerizondoa landatu zen modura egingo da Hegoaldetik eramango den zuhaitzarekin Iparraldean.

Alaitz eta Maider, Eten gabe eta Apatxe taldeekin. Ondoren 'Kuxkuxtu' txar-

rangakoak goizalderarte. Jaian, Iparraldeko eta Hegoaldekoen arteko trinkete partidua neskak zein mutilak. Ondoren, harremanen sinbolo modura, Hegoaldetik eramandako zuhaitz aldatzea eta honen inguruko ekitalditxoak. Eguerdian, herri bazkaria txaranga eta guzti. Arratsaldean eta amaiera emateko, bertaratuak mutxikoak dantzatuko dituzte.

Antolatzaileek, segurarrak ezezik, goierritar eta euskaldun guztiak gonbidatu nahi dituzte Donapaleuko ekitaldietara. Autobusak antolatuko dira eta lotokia ere izango da bertan. Honi guztiari aurre egiteko errifak ere atera dira.

afizionatuek 22 eta 3 Zumarragakoen aurka. Asteburu honetan jubenilek Oñatin jokatu dute Aloña Mendikoaren aurka. Afizionatuak Lazkao K.E.koen kontra ari tuko dira Lazkaon. Datorren asteburuan jubenilek Eskoriatzan jokatu dute eta afizionatuek Tolosan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonialak: Segura 2-2 Zarautz. **Jubenilak:** Segura 2-3 Beti Onak. **Kadeteak:** Real Sociedad 9-1 Aizkorri. **Infantilak:** Santo Tomas Lizeoa 1-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Segura-Idiazabal, zapatuan 16:00etan. **Infantilak:** Segura-Aretxabaleta, jaien 11:30ean.

Errejonaletan derbia izango da zapatuan: Ordizia-Segura, Altamiran, 16:00etan.

Labur-labur

● **Umeen eguna:** Segurako Gazte Asanbladak umeen-

tzako joku eta jolasak antolatu ditu urriaren 30erako. Hauek, arratsaldeko 4etan hasiko dira plazan eta eguraldi txarra bada, frontoian. Ondoren, merienda izango da partehartzaile guztientzat.

● **Odol-emaileen afaria:** azaroaren 7an iluntzeko 7etan hildako odol-emaileen aldeko mezaren ondoren, 20:30ean afaria izango dute Zopajale Elkartean. Herriko elkarteak iaz 25 urte bete zituela eta, Gipuzkoako elkartetik dirua jaso denez, afaria dohainik izango da. 150 lagun inguru dira inoiz odola emandakoak herrian. Informazio gehiago Jermanenen edo Drogerian.

● **Iñaxio Imaz,** Koteto Ezkurrarekin ari da jokatzeko erremonteko binakako txapelketa nagusia. Iaz txapel-dunorde geratu ziren.

Joseba Telleria

LAZKAO

Hauteskunde eta inkesta artean

Mahaia	1-A	1-B	2-A	2-B	3-A	3-B	Guztira	Botoen %a
EH	126	93	217	217	147	167	967	%33
EAJ-PNV	125	89	175	155	115	104	763	%26
PSE-EE	84	84	71	81	41	35	396	%13,56
EA	53	23	69	69	62	57	333	%11,4
PP	71	49	62	73	40	32	327	%11,2
EB-IU	16	30	26	22	19	8	121	%4
PLN	4	1	-	6	-	-	11	
UA	-	1	-	-	-	-	1	

Taulakoak dira aurreko igandeko hauteskundeetan izan genituen emaitzak mahaiak. Ez dugu hauteskundearen emaitzei buruz ez gogoetarik ez baloraziorik egingo, baina badaude beste hainbat datu jakingarri. Garrantzitsuena, sekula baino herritar gehiagok eman zuela botua, % 74,2ak hain zuzen.

Gainerantzean eguna lasai joan zen, ezbehar larriegirik gabe. Betiko nahasteak gertatu ziren noski, karneta ahaztu zutenak, non botoa eman ez zekitenak, eta izan zen botoa non eman ez asmatzeagatik haserretu eta mahaiko lehendakariaren aurrean bere botoa hautsi zuenik ere.

Lazkaoko Ekimenaren inkesta

Aurreko ostiral eta larunbatean, Lazkaoko Ekimena taldeak, inkesta egin zuen. Hiru mahai jarri zituzten herrian zehar, guztion iritzia jakiteko asmotan. Euskal presoen inguru egiten duten lana sakondu eta ahal bada hobetzearen burutu zuten inkesta.

Pelota txapelketa

Urteroko ohiturari jarraituz, orain aste batzuk hasi zen herriko pelota txapelketa. Palaz jokatzeko da, gomazko pelotarekin. Aurten 17 bikotek eman dute izena. Bi taldetan daude banatuta eta lehen fasearen ondoren talde bakoitzetik 4 sailkatuko dira. 8 bikote hauen artean erabakiko da txapelduna. Partiduak plazako frontoian jokatzeko dira asteburuero.

Ikusentzunezkoak

Azaroaren 4an, 'Artzantza Urtaroan' diaporama eskainiko du Julian Auzmendik. Maizpiden, 21:00etan.

Azaroaren 11n, 'Gizakia- ren Elikadura Historian Zehar' diaporama Udaletxeko Areto Nagusian, 21:00etan.

Urko Irastorza

OLABERRIA

Azaroaren 1aren inguruan ekitaldi ugari



Santu Guztien egunaren, azaroak 1, inguruan, hainbat ekitaldi antolatu dira. Egunean bertan, ohiko gaztaina jateaz gain, bada zer ikusirik. Batetik, arratsaldeko 5etan, Hika antzerki taldearen 'Txarlotadak' kale-antzerkia ikusteko aukera izango da. Goenkaleko

Amaia eta Felix dira protagonistetako bi. Taldekideak beraz hauek dira: Belen Cruz, Agurtzane Intxaurrea, Miren Gojenola eta Mikel Laskurain.

Arratsaldeko 6etan, urriaren 11n jokatu zen V. Argazki Rallyko diapositiba emanaldia eta sari-banaketa

izango da, Ludotekan. Par- tehartzaileen diapositibak ikusteko aukera izango dira. Sariei dagokienez, irabazleak 25.000 pezeta eta garaikurra jasoko ditu; 2.ak 15.000 pezeta eta garaikurra; 3.ak 10.000 eta garaikurra; herriko lehenengoak 10.000 pezeta eta garaikurra; eta Prycak emango duen gazte saria, 15.000 pezetakoa izango da. 7ak aldera, ohiko gaztaina jana izango da Guraso Elkartek antolatutik.

Jabier Fernandezek argazki erakusketa

Aste guztian zehar, Bikario etxean, Jabier Fernandez herriarraren 'Baztanetik Gironarainoko haran guztiak' argazki erakusketa ikusteko aukera izango da.

Ordutegia honakoa da: astean zehar, arratsaldeko 17etatik 19etara; eta larunbata eta igandean, arratsaldeko ordutegiaz gain, 12:00etatik 14:00etara ere ateak irekita izango dira. Azaroaren 2ra arte egongo da zabalik.

Gazteentzat hitzaldia

Kutxaren eskutik, 'Europar bidaia, lan egin eta ikasi' gaiari buruzko hitzaldia izango da azaroaren 2an, arratsaldeko 6,30ean. Ikasketa Europar Zentruak emango du hitzaldia. Zirkulazio askatasuna, lan baldintzak, ikasketak... bezalako gaiak jorratuko dituzte. Gazteentzat izango da hitzaldia eta batez ere gazteei zuzendua dago.

ZALDIBIA

Ardikia euripean



IV. Aralarko Gazta lehiaketa Orioko Inaxio Irastorza
'Katzine'k irabazi zuen.

Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, oso giro politean igaro zen pasa den igandean ospatu zen V. Ardiki Eguna. Bertan, Zaldibiko Mondejuaren V. lehiaketa irekia eta Aralarko Gaztaren IV. izan genituen ardatz nagusiak, antolatutako beste ekitaldi guztiak ahaztu gabe.

Mondejuetan lehen saria Ordizian bizi den Joxepa Armendariz zaldibitararentzat izan zen. Iaz bigarren postua lortu zuen eta aurten bera izan da garaikurra eta 50.000 pezeta eskuratu dituen. Joxeparen atzetik, Gaintzako Kaietana Etxeberria geratu zen eta hirugarren postua Juanita Murua zaldibitararentzat izan zen. Hauek, 35.000 eta 20.000 pezetatako sariak lortu zituzten hurrenez hurren. Guztira hogeitabat partehartzaile izan genituen aurtengoan.

Gazta lehiaketara, berriz, hemeretzi lagun aurkeztu ziren. Hemen, lehen postua Inaxio Irastorza *Katzine* artzai oriotarrak lortu zuen, Abel Segurola azpeitiarraren eta Jeronimo Nazabal zaldibitararen aurretik.

Hiru ardik eta ahari batek osatutako lotean, Abel Segurola izan zen garaile. Honen atzetik, Juan Mari Zinkunegi errezildarra kokatu zen eta hirugarren postuan *Katzine*.

Txapelketaz gain, goizean goiztik tobera, trikitixa, txistulariak, albokariak eta dultzaineroak izan genituen giroa alaitzeko asmoz. Herritarrek euren trebeziak erakusteko parada ere izan zuten. Horra hor artilea egiten aritu zirenak, edota mondejua egiten aritu zirenak ere. Zaldibia Aralar Pottoka Elkarteko (ZAPE) kideak festako partaide izan ziren, hor izan baitzituzten erakusgai orainartean pila-tutako euskal pottokak.

Bazkalaurretik aizkora lehia eta motozerra erakustaldi batez gozatu genuen. Motozerrarekin egur lanean Aragoiko Hecho herriko basomutilak aritu ziren eta ondoren horietako bi lagun Zaldibiko Miel Mari Jauregi *Altzo* eta Akaitz Jauregi-
ren aurka aritu ziren aizkoran. Euripean aritu ziren lau lagunak lehian, baina hala eta guztiz ere jendearen erantzuna ona izan zen.

Mendi irteera

Gailurrerantz Kirol Elkartek Pirinioetara mendi irteera antolatu du asteburu honetarako. Urriaren 31n, larunbata, goizeko 7etan herriko plazatik irten eta autobusez joango dira Hechora.

Larunbatean Hecho-tik Linzako aterperaino joango dira; gaua han pasa eta igandean bertatik Hiru Errege Mahaiara igo eta Belagorara jaitsi.

Izena emateko epea hilaren 26an, astelehena amaitu zen. Mendi irteera honetara joateko asmoa duzuenok jantzi egokiak, eguzkitarako betaurrekoak eta krema, pioleta, kranpoiak, mendiko txartela... eraman beharko duzue, 2 egunetarako bazkariak gain (fruitu lehorrak, txokolatea...).

Hauteskundeetako emaitzak

Urriaren 25ean ospatu ziren Legebiltzarreko hauteskundeetan honako emaitza hauek lortu ziren Zaldibian:

- EH: 610 boto
- EA: 123 boto
- EAJ: 122 boto
- PSE-EE: 54 boto
- PP: 48 boto
- EB-IU: 18 boto
- Besteak : 4 boto
- Zuriak / baliogabetuak: 15 boto

Oraingo honetan, errol-dan geunden herritarren kopurua 1.309koa zen. Haue-tatik 315 abstenitu egin ziren, zaldibitarren %24a gutxigorabehera.

Mozorro lehiaketa

Hilaren 22an amaitu zen mozorroen argazkiak Kultur etxean aurkezteko epea. Dagoeneko Beti Gazte El-

kartearen aurrean daude argazkiak ikusgai. Beraz, sari banaketarako zuen botua eman nahi baduzue Kultur Etxera jo beharko duzue azaroaren 5a baino lehen.

Eskola kirola

1998-99 ikasturteko eskolarteko futbito txapelketa hasi berria zaigu aurten ere. Ondorengoak dira Lardizabal Herri-eskolak denboraldi honetarako lotu dituen taldeak, entrenatzaileak eta azken asteburuko emaitzak:

Benjamin neskak, entrenatzaileak Izaro Azurmendi, Leider Agirre eta Eider Alberdi dira.

Benjamin mutilak, San Benito 'b' 4 - Lardizabal 5. Entrenatzaileak Xabier Arana eta Iban Pajares.

Alebin neskak, Lardizabal 14 - Jakintza 'c' 0. Entrenatzailea Iñaki Azketa.

Alebin mutilak, Lardizabal 8 Jakintza 'c' 4. Entrenatzaileak Xabier Arana eta Iban Pajares. Infantil neskak: Lardizabal 0 - Legorreta 5. Entrenatzailea: Harri Urdangarin.

Infantil mutilak, Lardizabal 6 - Jakintza 'a' 4. Entrenatzailea Julen Marijuan.

Kadete mutilak, Jakintza 0 - Lardizabal 3. Entrenatzaileak: Dionisio Agirre eta Aitor Garmendia.

Federatutako bi taldeen emaitzak hauek izan dira: Mutilak: Zaldibia 2 - Donosti-chef 2. Neskak: Zaldibia 2 - Alzakok 8.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

IDIAZABAL

Dantza taldea sortzeko ekimena



Axari dantza taldeak indar handia zuen garai batean. Orain berreskuratu egin nahi dute.

	1998	1994
EA	433	368
EH	345	260
EAJ	329	327
PP	92	34
PSE-EE	31	28
IU-EB	15	17
UA	1	1
BESTEAK	7	0

Egunkari berria

Egin egunkaria ordezkatzeko duen egunkari berriaren aurkezpena egin zen Kultur etxean urriaren 20an. Bertan proiektuaren berri eman zen. Euskal Herrian 1.000 milioi biltzeko asmoa du egunkaria bultzatzen ari den Baietz fundazioak. Diru ho-

ri biltzeko 100.000 pezeta-ko akzioak daude salgai, norberak nahi duen diru kopurua emateko aukera ere badago.

Mendi ibilaldia

Idiazabal Kirol Elkarteko Mendi Sailak hiru eguneko irteera du antolatuta asteburu honetarako. Oza, Zuriza eta Belagoan ibiliko dira Hiru Erregeen Mahaira igoz. Zurizako Linzan dagoen mendi aterpean lo egingo dute eta bertarako bidaia autobusez egingo dute, Zaldibiako mendizaleekin batera.

Xabier Urteaga

Kultura Batzordea herrian dantza taldea osatzeko lanean ari da. Hainbat urtean Axari dantza taldeak herriko neska-mutiko ugari bildu du, azkenaldian, ordea, gorabehera asko izan da. Tarte-ka, aurretik dantza taldean ibilitako partaide batzuk saiatu dira berriro ere biltzen eta hainbat emanaldi ere egin dute, baina jarraipenik gabeko ahaleginak izan dira horiek.

Taldea berriro ere martxan jartzeko Udala irakasle bila ari da. Bereziki, Axari dantza taldean ibilitako he-

rritarrei zuzendutako deialdia egin dute. Udalak eskulanak edota soinketa irakasleko dituen irakasleen pareko izango dira dantza irakasleak. Izena emateko epea azaroaren 6an, ostirala, bukatuko da. Udaletxean, Kiroldegian eta Kultur etxean daude horretarako zerrendak.

Hauteskundetako emaitzak

Aurreko igandean Legebiltzar berria aukeratzeko egindako hauteskundeek ondoko emaitzak utzi dituzte Idiazabalen:



Festetarako bilera

Datorren urteko Sanblasak antolatzeko lehenengo bilera gaur, urriak 30, egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 19.00etan. Festak zein egunetan egin erabakiko da lehenengo bileran.

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
 ☎ 943 882442 - 943 888901
 Faxa: 943 888901
 LAZKAO

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
 astelehenetik ostiralera,
 12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

VOLVO TOYOTA ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
 Mekanika eta
 elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
 ☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
 BEASAIN

✓ Aholkularitza juridikoa
 ✓ Entrepresa zerbitzuak
 ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
 Kale Nagusia, 2 BEASAIN

ANGEL IMAZ

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 18 70 49
 Ondramuño etxea IDIAZABAL

ORMAIZTEGI

Mendi astea azaroaren 9tik 15era

Urtero bezala aurten ere azaroa hasierarekin batera, Kirol Elkarteko Mendi sailak eta Udalak antolatutako mendiko astea izango da. Beronek herriko Ander Deunaren jai nagusiak gainean ditugula adierazten digu. Aurtengoan gainera, herriko jaiak eta mendiko astea biltzen dituen programa bakar bat kaleratu da, ekin-tza hauei guztiei osotasuna emateko asmoarekin.

Mendi astea azaroaren 9tik 15era bitartean burutuko da. Bertan, ondoren egitarauan adierazten den bezala, mendiak ondo ezagutzen dituzten kirolari espezialistak partaide izango ditugu.

Azaroak 9, astelehena:

Josu Eizagirrek, 'Iparralde: Xiberuatik-itsasora' emanaldia eskainiko digu

Kultur etxeko aretoan, 19:30ean.

Azaroak 10, asteartea:

Joseba Ugaldere txanda izango da. 'Pirinioak izotza eta elurra' ikusentzunezkoa eskainiko du. Negu bateko istorioez gozatzeko aukera izango da, Kultur etxean, 20:00etan.



Azaroak 11, asteazkena:

Koke Lasa herritar mendizalearen eskutik, 'Mendizerra txuria' ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango da, Kultur etxeko aretoan, 19:30ean.

Azaroak 12, osteguna:

Josu Merinok 'Via ferrati al ferro Torre' lana eskainiko du, 19:30ean, Kultur etxean.

Azaroak 13, ostirala:

Egun honetako emanaldia zehazteko zegoen artikulu hau idazterakoan. Baina mendizale ospetsu bat etorriko dela ziur esan daiteke. 19:30ean izango da emanaldi hori.

Azaroak 14, larunbata:

Haurrek arrokodromoan eskalatzeko aukera izango dute, goizeko 10etatik aurrera.

Azaroak 15, igandea:

Goizeko 9etan enparantza-tik abiatuta, Ormaiztegi-Ormaiztegi ibilaldia egingo da. Helmuga Itxune erretegiaren aurrean egingo da. Amaieran, luntxa eskainiko zaie partehartzaileei.

Arratsaldean, berriz, 6etan, gaztaina jana izango da herriko enparantzan.

Ondoren, Ormaiztegi Kirol Elkarteko Mendi sailak eskainiriko diapositiba emanaldia izango da.

Aitziber Murua

EAJ irabazle

Urriaren 25ean egin ziren Legebiltzarreko hauteskundeetan EAJ alderdiak atera zituen boto gehien. Ondoren dituzue emaitzak:

EAJ	312
EH	165
EA	158
PP	33
PSE-EE	13
IU-EB	10

970 lagunek zuten botatzeko eskubidea Abstenzioa % 16,49koa izan zen.

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- ✕ Eguneroko menua
- ✕ Karta zerbitzua
- ✕ Plater konbinatuak
- ✕ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



Aramako luistarrak eta Mariaren alabak

Orain dela 40 bat urte ataratako argazkia da. Aramako luistarrak eta Mariaren alabak dira guztiak, On Franzisko apaizarekin. Hilero biltzen ziren, lehenengo igandean. Udaletxeko atariaren aurrean dago aterata argazkia.



MULTIOPTICAS



GORTASUNAREN LAGUNTZA JARDUNALDIAK

AZAROAK 9-10-11-12-13

DEITU TXANDA HARTZEKO

ENTZUMENAREN AZTERKETA DOHAINIK

AUDIFONOEN APURKETAREN ASEGURUA
(LEHENENGO URTEA)

ORDAINKETA, NORBERAREN NEURRIAN

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA, GAESen LANKIDETZAREKIN,
FINKOTASUN BETETARIKO KONPROMEZU BAT.



LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943761575
BERGARA

J. Carlos Guerra, 1
Tel. 943792995
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp
Tel. 943889988
ORDIZIA

Bigarren atala- Urriak 28-tik Azaroak 5 bitarte

**etorkizuna
zure esku**



Pentium II 350 Mhz. Prozesadorea



FUJITSU ORDENAGAILUA

PRODUKTU HAU

**INTERESIK
GABEA**

12 ALDITAN

199.900

10.000

Pta.
hilean

- **Pentium II 350 Mhz.** Intel Prozesagailua.
- **440 BX** Intel Chipset (100 Mhz-ko bus-a).
- **32 Mb. RAM**, 384-ra zabalgarria.
- **4.3 Gb** diska gogorra
- oroimen katxea 512 kb.
- **CD-room** abiadura **x 32**
- **ATI 3D AGP** grafiko txartela. **4 mb.** Bideo Ram.
- Bozgorailu eta Sound Blaster-eko 16 bit-eko soinu txartela.
- **17"** SVGA pitch 0.28 pantaila.
- Window 98, ms Word 97, MS Works 4.

PRYCA PASS TXARTELA. NAHI DEZUN BEZELA ORDAINDU.



GOIERRI

